

**GIPUZKOAKO LURRALDE
HISTORIKOKO FORU SEKTORE
PUBLIKOKO ERAKUNDEAREN ETIKA
BATZORDEAREN JARDUERA MEMORIA**

2021



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Argitaratzailea:

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoko Erakundearen Etika Batzordea

Argitalpena: 2022ko Uztaila

Argitarapena:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gobernantza Departamentua

Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zuzendaritza nagusia

Plaza Gipuzkoa z/g. 20004 Donostia

T. 943 11 39 60 · modernizazioa@gipuzkoa.eus

www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema/etika-batzordea

Lege Gordailua: D-840-2022

ISBNa: 978-84-7907-840-9

SARRERA

Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Al-
dundiko eta haren Sektore Publikoko Erakundearen
Zuzentasun Sistema onartu zuen. Jarraian, Era-
kundearen Etika Batzordea (EEB) sortu zen 3/2016
Foru Dekretuaren bidez, eta Diputatuen Kontseiluak
2016ko maiatzaren 3an hartutako erabakiaren bi-
dez, bertako kideak izendatu ziren, hain zuzen ere
Erakundearen zuzentasun Sistema hori betetzeko
berme organo gisa.

Memoria honen xedea da 2021an zehar Erakunde-
ren Etika Batzordean izandako jarduera jasotzea.
Horrez gain, memoria honek, aztertutako kasuak
zehazteaz gain, hainbat gomendio ere jasotzen ditu
Erakundearen Zuzentasun Sistemaren barne dauden
Jokabide Kode ezberdinen edukia interpretatzeko,
hain zuzen ere edukia argitu eta egungo egoerara
egokitzeko. Guzti hori Erakundearen Zuzentasun
Sistema Bermatzeko Organoaren funtzioei buruzko
3/2016 Foru Dekretuaren 3. artikulua d) eta e)
atalean xedatutakoaren arabera.

1- Testuingurua	7
2- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema	9
a) Material sinplifikatua	10
b) WhistleB salaketa eta kontsulta kanala ezartzea	10
c) Iruzurraren aurkako neurrien plana Europar Batasunak kofinantzatutako proiektuetan	10
d) Interes taldeen erregistroa	11
e) Erakundearen Etika Batzordearen funtzionamendu araudia	12
3- Sentsibilizazioa, zabalkundea eta kanpo proiektzioa	13
a) Etika publikoa eta pandemia. Zooma, martxoaren 3a	14
b) Kongresu, jardunaldi eta ikastaroetan parte hartzea	15
a. Zuzentasunaren erakunde esparruak. INAP, otsailaren 9a eta 16a	15
b. Zuzentasunaren eta gobernu onaren euskal sistema. Donostia, martxoaren 2a	15
c. Kanarietako Gobernu Irekiaren Legeari egindako ekarpena. Apirilaren 22a	16
d. Errioxarako gobernu onaren eta zuzentasunaren eredurantz. Maiatzaren 19a.	16
e. Administrazio Irekiaren 2021eko astea. Maiatzak 18	17
f. Administrazio publikoen eta zuzendaritza publikoaren zerbitzura dauden pertsonak antolatzeke eta kudeatzeko III. biltzarra. Sevilla, urriaren 15a	19
c) Albisteak eta argitalpenak	19
a. Jokabide kodeak eta zuzentasun esparruak kontratazio publikoan. Arrakasta kasua: Gipuzkoako Foru Aldundia	19
b. <i>Report INTEGRITY CLOSE to CITIZENS. An exploratory study of integrity systems in European local authorities.</i>	20
d) Online prestakuntza: “Gobernantza ireki eta kolaboratiboa”.	21

4- Jasotako gaiak23
a) Laburpena24
b) Aztertutako gaiak.28
• 01/2021, Basquepensiones borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundearen Batzar Nagusiko kide izateari buruzko kontsulta (JK)28
• 02/2021, beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan aritzeagatik konpentsazio ekonomikoak jasotzeari buruzko kontsulta (EP)31
• 03/2021 Ebazpena, bitarteko funtzionarioek betetako plazak GFaren Enplegu Publikoko Eskaintzetatik kanpo uzteari buruzkoa (EP)35
• 04/2021 Ebazpena, Gipuzkoako Foru Aldundiko bitarteko funtzionarioen behin-behinekotasunari buruzkoa (EP).37
• 05/2021 Ebazpena, GFAko lan eskaintza publikoen berehalako deialdiari eta funtzionarioen behin-behinekotasunari buruzkoa (EP)39
• 06/2021 Ebazpena, GFAko lan eskaintza publikoen deialdiari eta lege aldaketen iragarkari buruzkoa (EP)40
• 07/2021 Ebazpena, Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako telelaneko arauari buruzkoa (EP)42
• 08/2021 Ebazpena, aldi baterako enpleguaz Europar Batasunak emandako zuzentarauen ustezko ez-betetze bati buruzkoa (EP)44
5- Aplikatzeko gida47

1. Testuingurua

2020. urteak pandemia eta administrazio publikoen jarduera berrantolatzeko eta lehenesteko beharra izan zuen ezaugarri nagusi eta horren ondoren, 2021ean, ohiko jarduera pixkanaka berreskuratzen joan da, eta denbora eta baliabide gehiago eskaini ahal izan zaizkie garrantzitsuak izan arren, logikoa denez, bigarren mailan utzi behar izan ziren proiektuei. Hainbat eta hainbat esparrutan bezala, pixkanaka eginkizunak berreskuratzea ekarri du, baita Erakundearen Etika Batzordearenak ere; izan ere, ikusi genuen bezala, 2020an jarduera urria izan zuen sentsibilizazioari eta gaien kudeaketari dagokienez.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema

a) Material sinplifikatua

2020ko memorian aipatzen zen bezala, urte horren amaieran erakundearen giro etikoari buruzko inkesta bat egin zen, eta, parte hartze txikia izan bazuen ere, ondorio orokor hau ateratzeko aukera eman zuen: erakundearen zuzentasun sistemaren berri gehiago eta hobeto eman behar da, eta, aldi berean, beharrezkoa da edukiak nahiz kontsulta eta salaketa prozedurak arintzea eta sinplifikatzea. Ondorio hori bat zetorren 2019an Erakundearen Etika Batzordeak gomendatzen zuenarekin, hau da, kontsultetarako eta salaketetarako bi-tarteko bermatzaileago eta eraginkorragoa ezarri behar zela (hurrengo atalean aipatuko dugu) eta sistema bera berrikusi beharra zegoela, hobekuntzarik egin zitekeen ikusteko.

Ildo horretatik jarraituz, 2021ean zehar, zabalkuntzarako material bisualagoak eta sinpleagoak egiten lan egin da, erakundearen zuzentasun sistemaren funtsezko edukia modu atseginagoan helarazteko, bertan jasotzen diren ideia nagusietara azkar eta argi iristeko aukera emanda. Lan hori 2022an argitaratuko da, eta komunikazio eta sentsibilizazio kanpaina bat egingo da foru sektoreko langile guztiengana eta Gipuzkoako herritarrengana iritsi ahal izateko.

b) WhistleB salaketa eta kontsulta kanala ezartzea

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzen-tarauak, Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoak, estatu kideei agintzen zien, enpresen eta administrazio publikoen barruan, salaketa bide eraginkorrak, konfidentzialak eta seguruak ezartzeko, bai eta barne bide horiek erabiltzen dituzten salatzaileak babesteko neurriak hartzeko ere, goragokoen edo enpresaren balizko errepresalien aurrean. Estatuentzako lehen transposizio epea 2021eko abenduaren 19an amaitu zen, eta ez zen halakorik egin; hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskakizunei aurre hartu die, ohi bezala, eta bere bi-tartekoa ezarri du.

Berez, bitarteko hori edozein langilek gerta litezkeen arau hausteak edo irregulartasunak ezagutarazteko tresna bat eskura izatea ziurtatzeko sortu zen, baina kontsultetarako ere erabiltzea erabaki da, gaien kudeaketaren trazabilitate handiagoa ahalbidetzen duelako, eta prozedurari ahalik eta gardentasun handiena ematen diolako.

c) Iruzuraren aurkako neurrien plana Europar Batasunak kofinantzatutako proiektuetan

COVID-19aren pandemiaren inpaktuei aurre egiteko Europar Batasunak sustatutako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, onartu zen, zeinaren bidez premiazko neurriak onetsi baitziren administrazio publikoak modernizatzeko eta plana gauzatzeko. Horretarako, ohiko prozeduretan zenbait egokitzapen xedatu dira, kudeaketa eraginkorragoa eta efizienteagoa izan dadin. Ildo horretan, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikulua xedatzen duenez, neurriak betearazten parte hartzen duten erakunde erabakitzaile edo betearazle guztiek iruzurraren aurkako neurrien plan bat izan beharko dute, beren jarduera eremuan dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla bermatzeko, bereziki iruzurra, ustelkeria eta gatazka interesak, prebenitzeari, antzemateari, zuzentzeari eta pertsegitzeari dagokienez.

Eskakizun hori guztiz bat dator foru administrazioak 2016an sortu zuen zuzentasun sistemarekin, eta haren kodeek, Batzordeak berak eta azpiegitura etikoa osatzen duten

gainerako elementuek prebentzio politikaren aldeko apustu sendoa egiten dute. Hala eta guztiz ere, Europako eskakizunek adierazten dute plan propio bat onartu behar dela Batasuneko funtsekin finantzaturako proiektuetarako. Hori dela eta, 2021eko abenduaren 28an, iruzurraren aurkako neurrien plana onartu zen, Europar Batasunak, Gipuzkoako Foru Administrazioak eta foru sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeek batera finantzaturako proiektuetarako.

Plan horren funtsezko zutabea, jakina, Erakundearen Zuzentasun Sistema da. Iruzurra- ren aurkako neurriek zikloaren lau fase hartzen dituzte: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta pertsekuzioa. Hartu diren edo hartuko diren neurriak foru administrazioan sustatzen ari den zuzentasun kulturaren garapenaren barruan kokatzen dira. Testuinguru horretan, prestakuntza plana, arriskua ebaluatzeko mekanismoak edo salaketa mekanismoak nabarmentzen dira.

Horrela, duela urte batzuetatik hona erakundearen zuzentasun kulturaren garapenaren inguruan egiten ari den lanari balioa ematen zaio. Orain zirkunstantziala bada ere, Foru Al- dundia aitzindaria izan zen 2016an Erakundearen Zuzentasun Sistemaren oinarriak ezarri zituenean, lege eskakizunei aurrea hartuz eta etikaren eta osotasunaren estandar gorene- kiko konpromiso instituzionala nabarmenduz.

d) Interes taldeen erregistroa

Jakina denez, Erakundearen Zuzentasun Sistemaren helburua da herritarrek foru erakun- deengan duten konfiantza sendotzea eta kultura etikoa Gipuzkoako gizarte osora hedatzea, Foru aldundiaren jardun eremuetatik haratago. Beraz, gizarte gisa eredugarria izatea da kontua; Gipuzkoako gizarteak eredu izan behar du zuzentasunari dagokionez.

Ildo horretan, argi eta garbi adierazten du onartu den azken kodeak, laguntzei eta dirula- guntzei buruzkoak, zeinak zioen azalpenean honako hau baitio “zuzentasun instituzionala ezin da Foru Administrazioaren eta haren mendeko sektore publiko instituzionalaren bar- nean itxita geratu, gizartera ere igaro behar baitu, gizarterako elkarte ehuna, erakunde eta enpresak, kontratazio publikoa eta Gipuzkoako herritar guztiak ere bilduta. Horrela, Insti- tuzioak erantzukizun kolektiboaren zentzua bultzatzen du, jendearen mentalitatea blaituz horren bitartez, herritarren kulturen aldaketa eraginez eta arauak barnera ditzagun lagun- duz; eredugarritasuna azken batean, gizartera igaro ahal izateko funtsezko elementutzat (...)”.

Bada, gizarte osora iristeko asmo horretan, 2021. urtean zehar beste eremu bati heldu zaio, non ezinbestekotzat jo den azpiegitura etikoa indartzea: interes taldeak.

Arduradun publikoek eta administrazio publikoen zerbitzura dauden pertsonak ezin dute gizarte zibiletik kanpo jardun; aitzitik, etengabeko elkarriketa irekia, gardena eta aldizkakoa izan behar dute pertsona, talde, erakunde eta elkarte ordezkatzailerekin eta gi- zarzarekin. Elkarrekintza hori, herritarrek parte hartzeko bitartekoa eta zilegia izateaz gain, sistema politikoaren heldutasunaren sintoma da, eta tresna eraginkorra da herritarrek botere publikoen kudeaketa ebaluatu ahal izateko; gainera, hartzen diren erabakien kalita- tea hobetzeko eta politika publikoak garatzen laguntzeko ahalmena du.

Baina eragin horrek etikoki eta gardentasunez egindakoa izan behar du; ezinbestekoa da bi aldeek jarraibide etiko batzuk eta gardentasun eskakizun batzuk onartu eta errespetatzea,

pertsonek eta interes taldeek agintariekin dituzten kontaktu guztien gidalerro izan daitezzen, haien jardunaren zuzentasuna egiaztatzeko eta esku hartzea legitimatzeko.

2021ean zehar landu den Interes Taldeen Erregistroa funtsezko tresna da gardentasunaren eta kontuak ematearen zerbitzura, eta, aldi berean, mekanismo eraginkorra da etikaren ikuspuntutik desbideratutako jokabideak prebenitzeko; horrenbestez, balio handiko elementua da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren foru sektore publikoaren zuzentasun sistemaren barruan, sektore pribatuan osotasun estandar handiagoak behartzeko balio baitu, eta helburu hori erabat lerrokatuta dago sistemaren xedearekin. 2022an onartzea eta argitaratzea aurreikusten da.

e) Erakundearen Etika Batzordearen funtzionamendu araudia

2020ko memorian ezarritakoari jarraiki, 2021ean zehar Erakundearen Etika Batzordearen eginkizunak eta erantzukizunak eguneratu eta garatzen dituen araudia egiten lan egin da, eta Batzordeak berak urte horietan metatutako esperientziaren ondorioz proposatutako hobekuntzak txertatu dira.

Hitzarmenaren edukia adostua izan bada ere, 2022an zehar onartuko da, eta, beraz, datorren urteko memorian emango dugu horren berri.

3. Sentsibilizazioa, zabalkundea eta kanpo proiektzioa

a) Etika publikoa eta pandemia. Zooma, martxoaren 3a

COVID-19aren pandemia fenomeno sozial konplexua da, osasun esparrutik harago doana, lanari, ekonomiari, garraioei, hezkuntzari, hirigintzari... eta bizitza sozial osoari eragiten baitie. Horregatik, erakunde publiko guztien erantzuna guztiz beharrezkoa eta aldi berean konplexua bihurtzen da, erakundeen gaitasun teknikoak eta etikoak proban jartzen baititu.

Testuinguru horretan, "Etika publikoa eta pandemia" jardunaldia egin zen, gardentasunaren edo zuzentasunaren garrantziari buruz hausnartzeko, besteak beste, konfiantza publikoa sortu ahal izateko, pandemiari aurre egiteko elementu erabakigarria baita, OMEk behin eta berriz adierazi zuen bezala. Hain zuzen ere, konfiantza publiko handiena duten herrialdeek, Finlandiak edo Zeelanda Berriak esaterako, egin diote hobeto aurre egoera zail horri. Horietan, herritarren erantzukizun individuala bat dator erakunde eta antolakunde publikoen erantzukizunarekin, eta, horrela, lidergo etiko, ireki eta kolaboratiboan oinarritutako zirkulu bertutetsu bat sortzen da.

Jardunaldia, batez ere online egin zen, zoom bidez, eta 66 pertsonak hartu zuten parte. Irekia izan arren, bereziki langileei edo beren lan etorkizuna zerbitzu publikora eta Administrazioa bideratu nahi zutenei zuzenduta zegoen. Horregatik, Eider Mendoza Gobernantzako foru diputatu eta Erakundearen Etika Batzordeko presidentek ekitaldiari hasiera eman zion administrazio publikoek osotasun sistemak izatearen garrantzia aitortuz eta foru sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistemaren ezaugarri nagusiak azalduz. Gainera, aditu hauek aritu ziren: María Teresa López de la Vieja (Salamanca Unibertsitateko etikako katedradun emeritua), Cristina Astier (Globernanceko filosofia politikoan aditua den ikertzailea) eta Txetxu Ausín (CSICeko Filosofia Institutuko zientzialari titularra, Etika Aplikatuko Taldeko zuzendaria).



"Etika publikoa eta pandemia" jardunaldia

b) Kongresu, jardunaldi eta ikastaroetan parte hartzea

a. Zuzentasunaren erakunde esparruak. INAP, otsailaren 9a eta 16a

2021eko urtarrilean, INAPEk (Herri Administrazioaren Institutu Nazionala) antolatutako ikastaro batean irakasle izateko gonbidapena jaso zen. Ikastaro hori udaletako idazkariei eta kontu-hartzaileei zuzenduta zegoen, Manuel Villoria Mendieta koordinatzen duen “Transparencia y participación. La presencia de la AP y del Directivo Público en las redes sociales” (Gardentasuna eta parte-hartzea. Administrazio publikoa eta zuzendari publikoak sare sozialetan) irakasgaiari.

Irakasgai honen asmoa zen zerbitzari publikoen garapen moralari lotutako gaitasunak indartzea toki administrazioaren ingurunean, konbentzio osteko etika aplikatu baten printzipioak, balioak eta arauak argituz; halaber, haien gaitasun analitikoak aztertu nahi ziren, ustelkeriak eta desfekzioak botere publikoen funtzionamendu onerako sortzen dituen arriskuak identifikatu eta horiei irtenbideak bilatu ahal izateko. Azkenik, gardentasuna, kontu-emaitea, eraginkortasuna, lankidetzeta eta parte-hartzea indartzeko tresna teknologiko berriek betetzen duten zeregina ezagutzeko azpimarratzen zen, eta, aldi berean, horiek erabiltzeko trebetasunak indartzea eta teknologia berri horiek erakunde publikoen ospe eta gobernu onerako sortzen dituzten arriskuak murrizteko beharrezkoak diren jarrerak aztertzeko.

Ildo horretan, Foru aldundiak Erakundearen Zuzentasun Sistemaren ezaugarriak eta Etika Batzordearen lana azaltzeko aukera izan zuen, erakundearen zuzentasun esparruei buruzko ikasgaiari (“Marcos institucionales de Integridad”).

b. Zuzentasunaren eta gobernu onaren euskal sistema. Donostia, martxoaren 2a

Lurraldetik kanpo ez ezik lurraldearen barruan ere zuzentasun sistema ezagutzeko interes handia dago. Oraingo honetan, *Eragin* elkarteak eskatu zuen horri buruzko hitzaldia, urteko programazioaren esparruan.

MARTXOA MARZO

2 - Ar/Ma	GOIZEDER MANOTAS <i>Directora General de Servicios e Innovación y Transformación de la Administración de la DFG</i>	Sistema vasco de integridad y buen gobierno
4 - Og/Ju	CARLOS BENITO <i>Musikologoa / Musicólogo</i>	Verdi / 150 años del estreno de Aida
9 - Ar/Ma	JUAN LUIS PUERTAS <i>Filología hispanikoa / Filología Hispánica</i>	Debate literario: 'La herencia de Eszter' de Sándor Márai
11 - Og/Ju	MIKEL LARRAÑAGA <i>Historialaria / Historiador</i>	Las primeras comunidades cristianas en Euskal Herria
16 - Ar/Ma	JUAN AGUIRRE <i>Periodista y escritor / Kazetaria eta idazlea</i>	Las Preciosas y las salonières
18 - Og/Ju	JOSU OKIÑENA <i>Pianista</i>	Música vasca en América
23 - Ar/Ma	J ESTEBAN OCHOA DE ERIBE <i>Periodista y escritor / Kazetaria eta idazlea</i>	Los vascos al servicio de Napoleon
25 - Og/Ju	EVALUACIÓN TRIMESTRAL	

Eragin kultur elkartearen 2021eko martxoko programa

Eragin kultur elkarte bat da, duela 50 urte baino gehiago sortua, 1966an, emakumea maila pertsonalean eta kulturalean errealizatzeko, eta nahi duten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko kide. Elkartearen helburuak, besteak beste, hauek dira: (1) sozializatzea, kontuan hartuta *Eragin* abian jarri zutenek gaur egun adinean aurrera doazela eta haien lehen-tasunezko premietako bat gizarte sareari eustea dela; (2) informazioa zabaltzea, hau da, inguruan duten errealitatearen berri izatea, aldaketa teknologikoak oso azkar gertatzen ari direlako eta gainerako ezagutzen bilakaeran eragina dutelako; eta (3) alderdi ludikoa lan-tzea, aurreko biak osatzeko. Helburu horiek lortzeko, elkarteak bisita kulturalak, txangoak eta hitzaldiak antolatzen ditu, eta azken horretan kokatzen da hitzaldia.

Martxoaren 2an izan zen, Donostiako egoitzan, eta 39 pertsona bertaratu ziren.

c. Kanarietako Gobernu Irekiaren Legeari egindako ekarpena. Apirilaren 22a

Kanarietako Gobernuoko Herri Administrazio, Justizia eta Segurtasun Sailak Gobernu Irekiari buruzko Lege bat egitea bultzatu zuen 2021ean, bere autonomia erkidegoa abangoardia normatiboan kokatzeko gai horri dagokionez, oso erabakigarria baita kudeaketa publiko berri baterako.

Lege berri horrekin batera, partaidetza prozesu bat abiatu zen, Gobernu Irekia osatzen duten eremuetan adituak ziren pertsonen ikuspegia eta ekarpenak jasotzeko, eta identifikatu zituzten jardunbide egokien esperientzia sakonago ezagutzeko. Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarri ziren, aitzindaria izan baitzen gai horri heltzen, foru gobernantza publikoaren esparruan onartutako Gobernu Onari buruzko martxoaren 11ko 4/2019 Foru Arauaren bidez, eta haren funtsezko zutabea Erakundearen Zuzentasun Sistema da. Horrela, online egindako elkarrizketa baten bidez, Foru Arauaren funtsezko elementuak azaldu eta Kanarietako arauarentzat erreferente izango den zuzentasun sisteman sakontzeko aukera izan genuen.

d. Errioxarako gobernu onaren eta zuzentasunaren eredurantz. Maiatzaren 19a

Kanarietako ekitaldiaren antzera, Errioxako Gobernuak interesa agertu zuen Aldundiaren Zuzentasun Sistema sakon ezagutzeko, kasu honetan, gobernu onaren eta zuzentasun ereduari buruzko hausnarketa jardunaldi baten harira.

Azken urteotan Gobernu Onaren elementuak garatzen ari dira pixkanaka, eta horri buruzko hausnarketaren barruan kokatzen zen ekitaldia. Kontzeptu hori erakunde publiko edo pribatu batek ekonomiaren, politikaren, gizartearen, kulturaren eta ingurumenaren ikuspegitik modu eraginkorrean, jasangarrian eta etikoan jardun dezan praktikan jarritako tresnen multzotzat har daiteke. Gobernu Onaren kontzeptu horren barruan, zuzentasuna sartzen da elementu nabarmen gisa, pertsonen ongizatean oinarritutako garapen jasangarriko eredu zuzen baten aldeko apustua egiten duen lurralde baten egitura politiko, ekonomiko eta sozialen funtsezko zutabetzat hartuta. Errioxako Gobernuak, gobernu onarekin eta zuzentasunarekin konprometituta dagoenez gero, gobernu onaren legea egin nahi du 2022an. Lege horrek, 2030 Agendaren printzipioekin eta Garapen Jasangarriko Helburuekin bat etorriz, kudeaketa publiko irekiagoa eta arduratsuagoa gidatu behar duten printzipioak eta sistematika definituko ditu.

Administrazio Irekiaren 2021eko Astearen barruan, “Hacia un modelo de buen gobierno e integridad para La Rioja” (Errioxarako gobernu onaren eta osotasunaren eredurantz) lankidetzan hausnarketarako jardunaldia egin zen. Gobernu Irekirako Aliantzak (Open Go-

PROGRAMA

HORA	DINÁMICA
09:30-09:45	INAUGURACIÓN Y PRESENTACIÓN Raquel Romero, Consejera de Igualdad, Participación y Agenda 2030
09:45-10:30	PRESENTACIÓN SOBRE CONCEPTOS AVANZADOS Y BUENAS PRÁCTICAS EN MATERIA DE BUEN GOBIERNO E INTEGRIDAD A CARGO DE PERSONAS EXPERTAS A NIVEL NACIONAL 10 minutos por Ponente. Pueden aportar presentación en PDF el día anterior. <ul style="list-style-type: none"> • Goizeder Manotas El sistema de integridad de la Diputación de Guipúzcoa. • Silvina Bacigalupo Ética e integridad para instituciones públicas. • Orencio Vazquez Ética e integridad para el sector privado .
10:30-11:30	COLOQUIO ABIERTO CON ENTIDADES RELEVANTES DE LA RIOJA ¿Cuál es la situación en La Rioja? ¿Qué necesitamos para avanzar en este ámbito? ¿En qué tipo de dinámicas de colaboración podemos apoyarnos? Los panelistas compartirán un debate abierto con agentes de la sociedad civil, academia... de La Rioja. Aproximadamente serán en total unas 15 personas.
11:30-11:45	CONCLUSIONES Y CIERRE Axier Arno, Director General de Transparencia y Buen Gobierno

Jardunaldiaren egitaraua

vernment Partnership) mundu osoan bultzatutako ekimen bat da, eta helburu nagusia administrazio publikoak herritarrengana hurbiltzea du, Gobernu Irekiaren printzipioetan oinarrituta.

e. Administrazio Irekiaren 2021eko astea. Maiatzak 18

Ekitaldi hori ere Administrazio Irekiaren Astean kokatu zen, eta Gobernu Irekiaren Gipuzkoako Behatokia aurkezteko aukera eman zuen. Gipuzkoako Foru Aldundiak garatutako aplikazio bat da, eta lurraldeko erakundeen eskura jartzen du haien egoera ezagutzeko eta eremu hori hobetzeko ibilbide orri bat egiteko. Lurraldeko erakunde guztiek konpromiso irmoa dute irekiagoak eta herritarrengana bideratuagoak izateko. Hala ere, jorratu beharreko gaiak hainbeste eta hain aldakorrek direnez, ez da beti erraza izaten irtenbide eraginkorrak aurkitzea, eta, horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak tresna hori garatzen du, erakunde bakoitzaren egungo egoera ezagutzea eta Gobernu Irekian aurrera egiteko orientabidea ematea ahalbidetuko duen tresna erabilgarria eskaintzeko.


Gobernu Irekiaren politikai dagokienez, etika eta zuzentasuna dira ardatzetako bat, eta, Erakundearen Zuzentasun Sistema jardunbide egokiaren adibidetzat hartuta, esparru horretan aurrera egiteko planteatutako ibilbide orria Foru Erakundearen Zuzentasun Sistematan oinarritzen da.

Gipuzkoako Gobernu Irekiaren Behatokia

Erakutsi emaitzak erakundearen arabera: -- | Edo erakundearen tamainaren arabera: -- | **ERAKUTSI**

Gobernu Irekia pertsonen eta erakundeen arteko elkarbizitza arina erakitzearren aldeko apustua da, gardentasun eta kontu-emate handiagoa gauzatzu eta herritarrei hitza emanaz parte hartzeko mekanismoen bidez. Heren ikus dezakezu zure erakundeak zere balorazio lortu duen (berro lotuz adierazita) eta lurraldeko garaierako jardueren balaz bestekoa (berro meluz adierazita). Beharago, Gobernu Irekiko alor espedientetan lortutako balorazioa ikusiko duzu. Datuak ekirritza zehatzetan onarritutako galdetegi baten bidez lortu dira, eta, gainera, Gobernu Irekiaren arloan autodiagnostikorako eta hobekuntzarako elementu gisa balio dute.

BALORAZIO OROKORRA



ARLOEN ARABERA

ETIKA ETA ZUZENTASUN PUBLIKOA ETA GOBERNU ONA



Un gobierno abierto realiza y mantiene compromisos éticos con la ciudadanía (EU)

EMAITZAK IKUSI

GARDENTASUNA, INFORMAZIOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA ETA KONTU EMATEA



Un gobierno abierto es transparente y rinde cuentas a la ciudadanía sobre su acción (EU)

EMAITZAK IKUSI

HERRITARREN PARTAIDETZA



Un gobierno abierto abre canales de participación para incorporar la voz de la ciudadanía a sus decisiones (EU)

EMAITZAK IKUSI

DATU IREKIAK



Un gobierno abierto abre sus datos creando un entorno de reutilización con la sociedad (EU)

EMAITZAK IKUSI

HERRITARREN ARRETA ETA DESBUROKRATIZAZIOA



Un gobierno abierto pone a la ciudadanía en el centro de sus servicios (EU)

EMAITZAK IKUSI

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK, ALIANTZAK ETA SAREAK



Un gobierno abierto colabora con otras instituciones y acciones sociales para gestionar su acción (EU)

EMAITZAK IKUSI

EMAITZAK MAPAN IKUSI



Gobernu Irekiaren Gipuzkoako Behatokia bistaratzea

f. Administrazio publikoen eta zuzendaritza publikoaren zerbitzura dauden pertsonak antolatzeko eta kudeatzeko III. biltzarra. Sevilla, urriaren 15a¹

Urriaren 14an eta 15ean, Andaluziako Juntako Lehendakaritza, Herri Administrazio eta Barne Kontseilaritzak, Andaluziako Administrazio Publikoaren Institutuaren bitartez, administrazio publikoen eta zuzendaritza publikoaren zerbitzura dauden pertsonen antolaketari eta kudeaketari buruzko III. Biltzarra antolatu zuen Sevillan, pertsonen kudeaketari eta zuzendaritza publikoari buruzko hausnarketa kolektiboa egiteko. Gipuzkoako Foru Aldundiari mahai inguru batean parte hartzeko gonbitea egin zitzaion, honako gai hauei buruz hitz egiteko: zuzendari publiko profesionalen konpromiso etikoa, konpromiso horren gakoak, zuzendaritzako langileentzako eskakizunak eta gure erakunde publikoetan etika sustatzeko modua.

Kasu horretan, Rafael Jiménez Asensio, Manuel Villoria Mendieta eta Víctor Lapuente Giné adituek ere parte hartu zuten mahaiari, eta, beste behin ere, Gipuzkoako esperientzia eta haren zuzentasun sistemaren berri eman zen.

c) Albisteak eta argitalpenak

a. Jokabide kodeak eta zuzentasun esparruak kontratazio publikoan. Arrakasta kasua: Gipuzkoako Foru Aldundia

Aurten ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zuzentasun Sistema erreferentziatuz hartu dute beste administrazio publiko batzuek. Oraingo honetan, FEMPEk² hartu du kontuan kontratazio publikoaren arloko jardunbide egokien kodea argitaratzean (*Código de buenas prácticas en materia de contratación pública*; lege gordailua: M-29839-2020), eta Foru Aldundiaren esperientzia arrakastatsutzat jotzen da bertan.

Francisco Javier Vázquez Matilla kontratazio publikoan aditua da, eta atal hori sinatzen du. Erakundearen Zuzentasun Sistema aipatzen du, eta, bereziki, kontratazio publikoari aplikatu dakikeen Jokabide Kodea eta Erakundearen Zuzentasun Esparrua, eta nabarmentzen du kodea ustelkeriaren aurkako borrokatik edo prebentziotik harago doala, eta patologia etikoei ikuspegi orokor batetik heltzen diela, eragin ditzaketen

Código de Buenas Prácticas en materia de Contratación Pública

Índice	
PRESENTACIÓN CÓDIGO BUENAS PRÁCTICAS FEMP	3
Carlos González Serna, Alcalde de Eche Presidente de la RED de Entidades Locales por la Transparencia y Participación Ciudadana de la FEMP	
Concepción Campos Acuña Coordinadora del GT de Integridad en la Contratación Pública	5
I. INTEGRIDAD	17
PLAN DE INTEGRIDAD EN LA CONTRATACIÓN PÚBLICA DEL AYUNTAMIENTO DE VIGO	19
Concepción Campos Acuña Doctora en Derecho y Secretaria de Gobierno Local, Ayuntamiento de Vigo	
1. GÉNESIS DEL PLAN DE INTEGRIDAD EN LA CONTRATACIÓN ¿DE DÓNDE VENIMOS?	19
1.1. El contexto: la apuesta por la transparencia y la integridad aplicadas en la gestión pública	19
1.2. Obligaciones impuestas en la Ley de Contratos en materia de integridad y transparencia	20
2. EL PLAN DE INTEGRIDAD EN LA CONTRATACIÓN PÚBLICA: PICVIGO	21
2.1. Origen	21
2.2. Metodología	22
2.3. Resultados	24
2.3.1. Marco estratégico	24
2.3.2. Desarrollo operativo	25
2.3.3. Planificación de la Contratación pública municipal del año 2020	26
2.3.4. Nuevo canal de comunicación: Intranet Corporativa	26
2.3.5. Open data en materia de Contratación	27
2.3.6. Elaboración y aprobación modelos de Declaración ausencia conflicto de intereses	27
2.4. Seguimiento y evaluación del PIC	28
2.5. Difusión	28
3. CONCLUSIONES: UN MODELO INTEGRAL DE APLICACIÓN DEL PRINCIPIO DE INTEGRIDAD EN LA CONTRATACIÓN PÚBLICA	29
LOS CÓDIGOS DE CONDUCTA Y MARCOS DE INTEGRIDAD EN CONTRATACIÓN PÚBLICA. CASO DE ÉXITO: LA DIPUTACIÓN DE GIPUZKOA	31
Dr. Francisco Javier Vázquez Matilla Abogado, consultor en contratación pública.	
1. LA INTEGRIDAD EN LA CONTRATACIÓN PÚBLICA. LA OBLIGATORIEDAD DE ADOPCIÓN DE INSTRUMENTOS	31
2. RED FLAGS EN CONTRATACIÓN PÚBLICA	33

8

Argitalpenaren aurkibidea

1 <https://ws168.juntadeandalucia.es/iaap/congresorrh2021/>

2 Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioa.

ondorioak kontuan hartuta. Gainera, dio langilei eta enplegatu publikoei eragiten dien erregulazioaz gain, alderdi exogenoa ere baduela, eta hori dela ezaugarri nagusietako bat, enpresentzat betebeharrak garrantzitsuak sortzen baititu, eta, bere ustez, azken hori da ko-dearen alderdirik garrantzitsua.


Concepción Campos Acuña aditu handia da kudeaketa publikoan, administrazio elektronikoan, gardentasunean eta kontratazio publikoan; Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioko “Zuzentasuna Tokiko Kontratazio Publikoan” lantaldearen koordinatzailea ere bada, eta Foru Aldundiaren jardunbide egoki horren berri ere ematen du bere blogean: <http://concepcioncampos.org/agunas-buenas-practicas-en-la-contratacion-publica/>

b. Report INTEGRITY CLOSE to CITIZENS. An exploratory study of integrity systems in European local authorities³

2020aren amaieran, Nazioarteko gardentasuna-Nederland harremanetan jarri zen foru Aldundiarekin, Nazioarteko Gardentasuna-Espainiako kideek hala esanda, toki erakundeetan nabarmendutako zuzentasun sistemei buruzko ikerketa zela eta. Ikerketaren helburua zen Europako hiri eta tokiko agintariei zuzentasun sistemak eta politikak hobetzen laguntzea. Ikerketa horretatik eratorritako txostenean, erakundearen zuzentasun sistema eraginkorra ezarri duten beste hiri edo eskualde batzuekin batera, foru Aldundiaren zuzentasun sistema babesteko ahaleginak nabarmentzen dira. Jardunbide egoki horiek jasotzen zituen txostena Europako beste hiri batzuekin partekatu zen Nazioarteko Gardentasun Sarearen bidez.

TRANSPARENCY INTERNATIONAL

BEST PRACTICES IN EFFECTIVE INTEGRITY SYSTEMS IN LOCAL AUTHORITIES IN EUROPE



12

13

Aztertutako jardunbide egokiak adierazten dituen argitalpenaren irudia

3 <https://www.transparency.nl/nieuws/2021/02/integrity-close-to-citizens-lokale-integriteit-essentieel-voor-onze-rechtsstaat/>

d) Online prestakuntza: "Gobernantza ireki eta kolaboratiboa" ⁴

2020-2021 azken urteotan aipatu dugun gobernantza ireki eta kolaboratiboko online prestakuntzaren hirugarren edizioa da. Jakina denez, prestakuntza horren helburua gobernantzaren kontzeptua garatzen duten politika publikoei buruz hausnartzea da, eta berariazko modulu bat eskaintzen dio etika publikoari eta gardentasunari, erakunde ekin-tzaren ardatz gisa, Erakundearen Zuzentasun Sistema jardunbide egokiaren adibide gisa azalduz. Edizio hori 2021eko azaroaren 29tik 2022ko maiatzaren 16ra bitartean egin zen, eta 26 ikaslek hartu zuten parte; horietatik erdia inguru foru sektore publikoko langileak ziren.

⁴ <https://gobernanza.asmoz.org/>

4. Jasotako gaiak

Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea aktibo jarraitzen du sortu zenetik foru EZS sistema betetzearekin eta orain arte onartutako 4 kodeekin lotutako kontsulta eta salaketak ebatziz: goi karguei, enplegu publikoari, kontratazioari eta diru-laguntza nahiz laguntzei aplikagarri zaiena. Honatx jorratutako gaien bilakaera:

- **2016:** 5 KP eta salaketa 1 (6)
- **2017:** 4 KP + 2 EP (6)
- **2018:** 5 KP + 1 EP + 2 EP salaketak + 1 KZ (9)
- **2019:** 3 KP+ 2 KP salaketak + 4 EP + 2 KZ + 1 DLL + 1 IIS (13)
- **2020:** 1 KP + 1 EP + 2 EP salaketak (4)
- **2021:** 7 EP + 1 KP (8)

KP: Kargu Publikodunen jokabide kodearen inguruko ebazpenak

EP: Enplegu Publikoaren jokabide kodearen inguruko ebazpenak

KK: Kontratazioaren jokabide kodearen inguruko ebazpenak

DL: Dirulaguntza eta laguntzen jokabide kodearen inguruko ebazpenak

EZS: Erakundearen Zuzentasun Sistemari buruzko kontsulta orokorren inguruko ebazpenak

a) Laburpena

Gaiak	Kop.	Ebazpena	Kop.
EP kontsultak	7	Ez du urratzen	1
KP kontsultak	1	Urratzen du	1
Guztira 2021	8	Artxibatua	6
		Guztira 2021	8

Ohikoa denez, Erakundearen Zuzentasun Sistema osatzen duten jokabide kodeetan ezarritakoa aztertzeaz eta interpretatzeaz gain, araudi eta dokumentazioa ere aztertu behar izan da, ikuspuntu juridikotik ikuspegi orokorra lortu eta ebazpenik egokiena hartu ahal izateko:

- 6/2005 Foru Araua, uztailearen 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikokoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena
- 1/2004 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak arautzen dituenak.
- 16/1993 Dekretua, otsailaren 2koa, zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzkoa.
- Baskepensiones, banakako BGAE borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundearen estatutuak.

Ondorengo taulan gaiak, aztertutako aginduak eta hartutako ebazpena laburbiltzen dira.

01/2021 (KP)	Basquepensiones borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundearen Batzar Nagusiko kide izateari buruzko kontsultaren gaineko ebazpena
Jokabide eta Jardunbide Egokiaren Kodea	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna [2.2.4 art.]
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • 6/2005 FA⁵, 24, 37, 47. art. antolaketa • ⁶/2014 Legea, 14.d) Bateragarritasuna • BGAren⁷ estatutuak 4.c) doakotasuna eta 22.c) Batzar Nagusiaren osiera
Ebazpena	Ez du urratzen
02/2021 (EP)	Beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan aritzeagatik konpentsazio ekonomikoak jasotzearen gaineko kontsultari buruzko ebazpena
Form Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea	<ul style="list-style-type: none"> • Helburua (1.3 puntua) • Zintzotasuna eta interesik eza (3.g. art.)
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • 40/2015⁸, 3.1.k) lankidetzaren printzipioa • 16/93 Dekretua, 20. artikulua, konpentsazio ekonomikoa
Ebazpena	Abstenitzeko obligazioa
03/2021 (EP)	Bitarteko funtzionarioek betetako plazaak GFaren Enplegu Publikoko Eskaintzetatik kanpo uzteari buruzko ebazpena
Enplegu publikoaren etikaren eta kudeaketa onaren kodea	<ul style="list-style-type: none"> • -
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • 3/2016 FD, ⁹2 eta 3. artikulua. Eginkizunak.
Ebazpena	Artxibatua, aztergai ez delako

04/2021 (EP)	Cipuzkoako Foru Aldundiko bitarteko funtzionarioen behin-behinekotasunari buruzko ebazpena
Enplegu publikoaren etikaren eta kudeaketa onaren kodea	-
Aztertutako beste arauak	• 3/2016 FD, §2 eta 3. artikulua. Eginkizunak.
Ebazpena	Artxibatua, aztergai ez delako
05/2021 (BP)	GFako lan eskaintza publikoaren berehalako deialdiari eta funtzionarioen behin-behinekotasunari buruzko ebazpena
Enplegu publikoaren etikaren eta kudeaketa onaren kodea	-
Aztertutako beste arauak	• 3/2016 FD, §2 eta 3. artikulua. Eginkizunak.
Ebazpena	Artxibatua, aztergai ez delako
06/2021 (EP)	GFako lan eskaintza publikoaren deialdiari eta lege aldaketan iragarkari buruzko ebazpena
Enplegu publikoaren etikaren eta kudeaketa onaren kodea	-
Aztertutako beste arauak	• 3/2016 FD, §2 eta 3. artikulua. Eginkizunak.
Ebazpena	Artxibatua, aztergai ez delako

07/2021 (EP)	Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako telelaneko arauet buruzko ebazpena
Enplegu publikoaren etikaren eta kudeaketa onaren kodea	• -
Aztertutako beste arauak	• 3/2016 FD, ^o 2 eta 3. artikulua. Eginkizunak.
Ebazpena	Artxibattua, aztergai ez delako
08/2021 (EP)	Aldi baterako enpleguaz Europar Batasunak emandako zuzentzarauen ustezko ez-betetze bati buruzko ebazpena
Enplegu publikoaren etikaren eta kudeaketa onaren kodea	• -
Aztertutako beste arauak	• 3/2016 FD, ^o 2 eta 3. artikulua. Eginkizunak.
Ebazpena	Artxibattua, aztergai ez delako

- 5 6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa.
- 6 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen
- 7 Baskepensiones, EPSV individual borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen estatutuak
- 8 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena
- 9 3/2016 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzekoa.

b) Aztertutako gaiak¹⁰

01/2021, *Basquepensiones* borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundearen Batzar Nagusiko kide izateari buruzko kontsulta (JK)

EBAZPENA, (...) JAUNAK, (...)KO ZUZENDARI NAGUSIAK, BASKEPENSIONES BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERAKUN-DEAREN BATZAR OROKORREAN PARTE HARTZEKO JASOTAKO GONBIDAPENA DELA-ETA EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2021eko apirilaren 8an Foru Sektorre Publikoko Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) igorritako mezu elektronikoaren bidez, interesdunak, (...) zuzendari nagusiak, iritzia eskatu zion EEbri *Basquepensiones* Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen (aurreantzean, *Basquepensiones*) Batzar Orokorreko kide izateko gonbidapena onartzeko aukerari buruz.

2.- Interesdunak mezu elektronikoan adierazi du, batzarkide izanez gero, urtean 2-3 bilerako dedikazioa aurreikusten duela (seguruenik telematikoki), eta ez duela inolako ordainsaririk jasoko kide ordezkari izateagatik. Egoera horren aurrean, ziurtatu nahi du kargu hori onartzea ez dela bateraezina aplikatu beharreko Erakundearen Zuzentasun Sistema osatzen duten kodeetan adierazitakoarekin.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurreantzean, EZS) onartu zen, etika publikoa eta eredugarritasuna nortasun-ezaugarri gisa finkatzeko.

Sistema horren esparruan, ereduzko hainbat kode onartu ziren, bata bestearen segidan: 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); 2017ko irailaren 5eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); 2017ko azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); eta 2018ko urriaren 2ko Diputatuen Kontseiluaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua (DLJK).

2.- Bai Erakundearen Zuzentasun Sistemak bai Jokabide Kodeek ezartzen dute martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortutako Erakundearen Etika Batzordea izango dela berme handieneko organoa, eta bera arduratuko dela horiek aplikatzeari buruzko gaiez. Berari dagokio, halaber, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balio, printzipio eta jokabide arauak ez betetzeagatik jasotako kexak eta salaketak izapidez eta ebatzea.

¹⁰ <https://www.gipuzkoa.eus/es/diputacion/sistema-de-integridad/comision-de-etica>

3.- Eskatzaileari Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea aplikatzen zaio, zehazki, 1.3 arau orokorraren 1. ataleko b) letran jasotakoa; bertan ezartzen da aplikazio eremua.

1.3. artikulua. Aplikazio eremua

1.- Kode hau kargu publiko edo asimilatu hauei aplikatuko zaie:

(...)

c) Foru sektore publikoko zuzendari eta gerenteei

(...)

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

Planteatutako gaia da ea interes gatazkarik edo bateraezintasunik dagoen *Baskepensione*-seko Batzar Orokorreko kide ordezkari izateko gonbidapena onartzeko.

1.- Lehenik eta behin, gogorarazi nahi dugu antzeko egoerak aztertu zirela 5/2016, 5/2017, 2/2019 eta 10/2019 gaietan, eta, beraz, han emandako argudioei eta erreferentziei jarraituko diegu.

6/2005 Foru Arauak, uztailearen 12koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 47. artikuluan ezartzen duenez, foru diputatuentzat 37. artikuluan ezarritako bateraezintasun erregimenaren mende egongo dira zuzendari nagusiak. Bertan dioenaren arabera, 24. artikuluan diputatu nagusiarentzat ezarritako bateraezintasun erregimen bera dagokie horiei; artikuluko horrek erreferentzia egiten dio, halaber, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioan diharduten kargu publikoen bateraezintasunari buruzko legediari.

Ondorioz, diputatu nagusiari ez ezik foru diputatuei eta zuzendari nagusiei ere aplikatu behar zaie 1/2014 Legeak, ekainaren 26koak, kargu publikoen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituenak, aurreikusten duen bateraezintasun erregimena.

Lege horrek, 14. artikuluan kargu publiko baten eta jarduera pribatuen arteko bateragarritasuna arautzen du, baldin eta jarduera pribatu horiek ez badute auzitan jartzen kargu publikoaren inpartzialtasuna eta independentzia bere zereginak betetzeko orduan. Horien artean, 14.1.d) puntuan hau aipatzen du:

(...)

d) **Ordainsaririk jaso gabe** parte hartzea **irabazi asmorik gabeko** fundazioetan, elkarrekin edo erakundeetan, bai eta gizarte balioak sustatzen dituzten interes sozial edo kultureleko jardueretan aritzea ere.

(...)

Ildo horretan, Erakundearen Estatutuetan, 4.c) artikuluan, argi eta garbi adierazten da erakundearen xedea:

(...)

c) Irabazi asmorik gabe jardutea, erakundearen ordezkariak betetzen dituzten eginkizunak dohainik betez (...)

(...)

Beraz, interesdunak idazkian adierazi zuen bezala, ez dirudi karguaren bateraezintasuna aurreikus daitekeenik, are gehiago a priori ezartzen den dedikazio denbora hain laburra denean (urtean 2-3 saio aipatzen dira).

Gainera, azpimarratu behar da “kide ordezkari” izendapena zozketa bidez egiten dela, estatutuen 22.c) artikuluan jasotakoaren arabera:

(...)

22. artikulua: Batzar Orokorraren osaera

(...)

c) Bazkide arruntak eta onuradunak ordezkariak dituzten 10 ordezkari.

(...)

Plan bakoitzari dagokion ordezkarien eta ordezkoen kopurua kalkulatu ondoren (kopuru bera bakoitzeko), notarioak zozketa egingo du kideak izendatzeko.

(...)

2.- Era berean, kasu hori **zuzentasunari eta interesik ezari** buruzko balioan eta jokabide-arauetan subsumitu daiteke (Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen 2.2.4 artikulua), bertan jasotzen baita Foru Aldundiko kargu publikoak interes publikoa eta Gipuzkoako herritar guztien interesak erabat betetzera bideratuko dituela bere jarduerak. Interes publikoen eta pribatuaren artean gatazkarik edo halakoaren itxurarik egonez gero, kargu publikoak horren berri eman beharko dio berehala dagokion agintariari edo, hala badagokio, Etika Batzordeari, interesdunak egin duen bezala.

Beraz, aurreko guztia adierazi arren, *Baskepensionese*ko ordezkari izatearen eta IZFEko zuzendari karguaren artean itxurazko interes gatazka sor dezaketen edo eragin dezaketen erabakietan zuzenean edo zeharka parte hartzea zaindu beharko du, eta, beraz, ezingo du parte hartu IZFE alderdi interesduna den *Baskepensionese*ko batzar orokorraren edozein gaitan.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez onartu du honako ebazpen hau:

EBAZPENA

Lehenengoa.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren arabera, zehazki Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen 2.2.4 artikulua garatzen duten arauen aplikazioaren arabera, eta Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 14.1.d) artikuluekin lotuta,

Baskepensioneseko Batzar Orokorreko kide ordezkari izendatzeak ez du urratzen Erakundearen Zuzentasun Sistema.

Bigarrena.- Nolanahi ere, izendapenak ezin izango du eragotzi edo kaltetu interesdunak duen kargu publikoaren eginbeharrak eta betebeharrak zorrotz betetzea, eta ezin izango du interesdunaren inpartzialtasuna edo independentzia arriskuan jarri, ezta interes publikoa kaltetu ere.

02/2021, beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan aritzeagatik konpentsazio ekonomikoak jasotzeko buruzko kontsulta (EP)

EBAZPENA, (...) ZUZENDARI NAGUSI (...) ANDREAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA: LANGILE BATZUEK EGINDAKO INTERPRETAZIOA BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUEKIN LANKIDETZAN ARITZEAGATIK KONPENTSAZIO EKONOMIKOAK JASOTZEA DELA ETA

I.- KONTSULTA

1.- Foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) 2021eko maiatzaren 19an bidalitako mezu elektroniko baten bidez, (...)k, iritzia eskatu zion EBBri funtzionario publiko batzuek beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan egiten dituzten jarduerengatik konpentsazio ekonomikoak jasotzeko aukerari buruz egiten duten interpretazioari buruz.

2.- Adierazten duenez, administrazioen artean dagoen lankidetzaren betebeharraren barruan, Foru Aldundiko funtzionario batzuek izendatzen dira beste administrazio batzuetako lan eskaintzen epaimahaletan parte hartzeko. Lankidetzaren honetan parte hartzen duten epaimahaikideek, hainbat administrazioetako kideek, konpentsazio bat jaso dezakete lan horrengatik (16/1993 Dekretua, otsailaren 2koa, zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzkoa). Aitzitik, bere Zerbitzuak interpretatu du, gure kode etikoaren arabera, parte-hartze hori lanpostuen parte den heinean, ezinezkoa dela kalte ordain hori jasotzea, eta halaxe jakinarazi diete kontsulta egin duten pertsonari.

Hala ere, gaur egun, langile batzuek zalantzan jartzen dute interpretazio hori, argudiatzen baitute dekretu bidez arautzen dena ezin duela erakundearen kode etikoak indargabetu, eta, beraz, konpentsazio hori jasotzeko eskubidea dutela..

3.- Gai hori argitze aldera, gai horretan jarraitu beharreko irizpideak finkatzeko eskatu dio Batzorde honi.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurre-rantzean, EZS) onartu zen, etika publikoa eta eredugarritasuna nortasun-ezaugarri gisa finkatzeko.

Sistema horren esparruan, ereduzko hainbat kode onartu ziren, bata bestearen segidan: 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile asimilatuen Jokabide eta Jardun-

bide Egokien Kodea; 2017ko irailaren 5eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua; 2017ko azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea; eta 2018ko urriaren 2ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua.

2.- Bai Erakundearen Zuzentasun Sistemak bai Jokabide Kodeek ezartzen dute martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortutako Erakundearen Etika Batzordea izango dela berme handieneko organoa, eta bera arduratuko dela horiek aplikatzeari buruzko gaiez. Berari dagokio, halaber, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balio, printzipio eta jokabide arauak ez betetzeagatik jasotako kexak eta salaketak izapidez eta ebaztea.

3.- Aurkeztutako idazkiaren arabera, enplegatu publikoen jarduerari buruzkoa da kontsulta, eta, beraz, Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea aplikatu behar da, bere 1.1 artikulua arabera:

1.- *Xedea*

1.1.- *Kode honek foru langileek euren funtzioak egitearekin lotutako jarduera profesional guztietan barneratu beharreko balore etikoak eta jokabide arauak ezartzen ditu, baita kudeaketa onaren eta jarduera profesionalaren arauen printzipioak ere.*

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Planteatzen den gaia da Gipuzkoako Foru Aldundiko funtzionarioek beste administrazio publiko batzuetako hautaketa epaimahaietan parte hartzeagatik konpentsazio ekonomikoa jasotzeko aukerari buruzkoa, eta gai hori 1993ko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak, zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzkoak, babesten du.

2.- Indarrean dagoen legeriaren arabera, administrazio publikoen arteko lankidetzak bete behar bat dago, 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, eskatzen duena, zeinak, 3.1 artikuluko k) letran, berariaz adierazten baitu:

3. artikulua. *Printzipio orokorrak.*

1. *Administrazio publikoek objektibotasunez egiten dute lan interes orokorraren alde. Halaber, efikazia, hierarkia, deszentralizazio, deskontzentrazio eta koordinazioaren printzipioei begira dihardute, erabat errespetatuta Konstituzioa, legeak eta zuzenbidea.*

Beren jarduketan eta harremanetan honako printzipio hauek zaindu beharko dituzte:

(...)

k) Administrazio publikoen arteko lankidetzak, elkarlana eta koordinazioa.

Ezartzen da, beraz, lankidetzak eta kooperazioak gidatzen dituztela administrazio publikoen arteko harremanak –zerbitzu publikoa ulertuta gizarte osoari ematea bezala–, eta

zerbitzari publiko guztiak behartzen dituela lankidetzan aritzera, prestazio publiko hobea eta eraginkorragoa lortzeko. Testuinguru horretan kokatzen da Foru Aldundiko langileek beste administrazio publiko batzuetako langileak hautatzeko epaimahaietako kide gisa parte hartzea. Jarduera horrek zerbitzuen ondoriozko kalteordaina jaso dezake, 1993ko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak, zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzkoak, dioenari jarraikiz.

20. artikulua

1.- Atalburu honetan jasotakoaren arabera **ordaindu behar den dirutza** joko da bertaratzeko lez, honako egoeretan:

(...)

b) **Langileak aukeratzeko prozesuak edo saioak epaitzeaz arduratuko diren Epaimahaietan parte hartzea**, izan ere, horiek gaintitzea beharrezkoa izango da bai profesionalek lanari ekiteko eta bai jarduketetan aritzeko ere.

(...)

Langile batzuek egiten duten interpretazioa da ez dela berez konpentsazio ekonomiko bat bere horretan, baizik eta dekretu batean babestuta dagoen zerbitzuen ondoriozko kalteordain bat dela eta kode etiko batek ezin duela ondorioz gabe utzi.

3.- Lehenik eta behin, gogorarazi behar dugu EBBren helburuen artean dagoela, besteak beste, foru enplegatu publikoek herritarrei zerbitzu emateko eta orientazioa emateko bokazioa sustatzea, bertan jasotako jokabideen balio eta arauen bitartez. Zalantzarik gabe, hori beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan aritzeko jarreran islatzen da. Helburu bera duten administrazio publikoak: objektibotasunez eta eraginkortasunez zerbitzatzea interes orokorreki, zerbitzu publikoak etengabe hobetzeko. Administrazioek, agindutako lana egin ahal izateko, besteak beste, enplegatu publikoak dituzte, hau da, administrazio publikoetan eginkizun ordainduak betetzen dituzten pertsonak. Ordainsari hori, hein batean, herritarren zerga kontribuzioei esker da, EEBk bere helburua aipatzean gogorarazten duen bezala:

1.3 artikulua

Jokabide Kodea onartzeko helburua ondorengo puntuetan azaltzen da:

(...)

c) **Gipuzkoar gizartearen** zerbitzupuan dauden foru langile publikoen jokabide onaren gida moduan jardutea, hau **baita bere zerga ekarpenen bidez langile horien euren lan profesionalagatik jasotzen duten ordainsaria ere oinarritzen duena**.

(...)

Zalantzarik gabe, balio erantsia eta aintzatespena eman behar zaie beren lan bidez zerbitzua ematera eta herritarren bizi kalitatea hobetzera bideratzea erabakitzen duten pertsonari. Eta haien eginkizunen artean dago, ikusi dugunez, beste administrazio batzuekin lankidetzan aritzeko betebeharra.

Ildo horretatik, gogora ekarri behar ditugu EBBn onestasanari eta desinteresari buruzko balioei eta jokabide-arauei buruz ezarritakoak:

3. artikulua. Zintzotasuna eta interesik eza

(...)

g) Foru langile publikoek ez dute oparirik, gonbidapenik, bidairik, janaririk edo konpentsazio ekonomikorik onartuko hitzaldiak emateagatik edo komunikabideetan parte hartzeagatik, **berariaz euren lanpostuko berezko funtzioak gauzatzeari lotutako jarduerak direnean**, eta modu berean ez dute euren zintzotasuna zalantzan jar dezakeen onurarik onartuko, edo erabakiak hartzea baldintzatu dezakeen edo baldintzatu dezakeela ematen duen bere eskumeneko gaietan parte hartuko. Berme organoak, kontsulta edo kexen bidez, opari, konpentsazio edo onura horiek onartu daitezkeen kasuak ezarriko ditu. Salbuespen horiek Kode honetako Aplikazio Gidan xedatuko dira.

(...)

Artikulu horretan, zenbait jarduera aipatzen diren arren, hala nola ikastaroak ematea edo komunikabideetan parte hartzea, ez da berariaz aipatzen beste administrazio batzuekiko lankidetzeta edo hautaketa epaimahaietako kide gisa parte hartzea, baina, gure ustez, ezinezkoa litzateke artikulu horren zentzua interpretatzerakoan kontuan hartu behar diren jardueren zerrenda osoa eta itxia adieraztea, eta, beraz, jarduera adibide soiltzat hartu behar dira. Aitzitik, kontuan hartu behar da, nolnahi ere, lanpostuaren berezko eginkizunak betetzearekin soilik lotutako jarduerak aipatzen dituela; hau da, enplegatu publiko gisa hainbat jarduera egiten baditu (besteak beste, beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan egindakoak), jarduera horiek bere zeregin publikoaren barruan sartzen direla, eta horren arabera lortzen duela funtzionario gisa ezarritako ordainsaria. Gainera, azpimarratu behar da, administrazio publikoen arteko lankidetzaren kasu zehatzean, funtzionarioak bi bide desberdinetatik lortzen duen diru publikoa jasotzen ari dela: jatorrizko administrazioarena, bere lanagatik hileru ordaintzen diona, eta lankidetzeta egin duen administrazioarena. Lankidetzeta hori, ez dezagun ahaztu, nahitaez egin behar du.

Beraz, nahiz eta egindako zerbitzuagatik konpentsazio bat jasotzeko aukera legez aurreikusi, beste batzuetan aipatu dugun bezala (2019/05, 2019/06), ezin dugu mugatu Erakundearen Zuzentasun Sistemaren irismena legezkotasun formalera, legezkotasuna ez baita etikaren parekoa. Izan ere, etika legea betetzea baino zerbait gehiago da, eta EBB honek ez du araudia betetzen dela zaintzeko eskumenik; alabaina, badu Erakundearen Zuzentasun Sistemaren jasotzen diren jardunbide egokiak betetzen, kontzientziatzen eta bultzatzen direla zaintzeko betebeharra.

Horregatik guztiagatik, Erakundearen Etika Batzordeak, 2021eko ekainaren 14an, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

EBAZPENA

Bakarra.- Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodearen 3. artikulua arabera (zintzotasunaren eta interesik ezaren balioei buruzkoa), lanpostuaren berezko eginkizunak betetzearekin lotuta dauden zereginak egiteagatik edozein konpentsazio jasotzeak, lanpostuak ezarritako ordainsariaz gain, integritate instituzionaleko sisteman ezarritako printzipioak eta jarduera arauak urratzen ditu. Beraz, konpentsazio hori ez jasotzea gomendatzen dugu.

03/2021 Ebazpena, bitarteko funtzionarioek betetako plazak GFaren Enplegu Publikoko Eskaintzetatik kanpo uzteari buruzkoa (EP)

EBAZPENA, BITARTEKO FUNTZIONARIOEK BETETZEN DITUZTEN PLAZAK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN EPE DEIALDIETATIK KANPO UZTEKO ESKATUZ AURKEZTUTAKO SALAKETA ANONIMOARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2021eko ekainaren 18an, idatzi anonimo bat jaso zen, non Europako araudia betetzea eskatzen baitzen, bai eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2021eko ekainaren 2ko Autoa ere, c- 103/19 Gaia (autoa erantsi zen); auto horretan adierazten da ezin direla oposizio librerara atera abusu egoeran (sic) dauden bitarteko funtzionarioek betetzen dituzten plazak.

2.- Eskatzaileak Erakundearen Etika Batzordearen eta Gobernu Onari buruzko 4/2019 Foru Arauaren funtzioen barruan kokatzen du eskaera.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurreantzean, EZS) onartu zen, etika publikoa eta eredugarritasuna nortasun-ezaugarri gisa finkatzeko.

Sistema horren esparruan, ereduzko hainbat kode onartu ziren, bata bestearen segidan: 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile asimilatuen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea; 2017ko irailaren 5eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua; 2017ko azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea; eta 2018ko urriaren 2ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua.

2.- Bai Erakundearen Zuzentasun Sistemak bai Jokabide Kodeek ezartzen dute martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortutako Erakundearen Etika Batzordea izango dela berme handieneko organoa, eta bera arduratuko dela horiek aplikatzeari buruzko gaiez. Berari dagokio, halaber, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako

balio, printzipio eta jokabide arauak ez betetzeagatik jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Aztergai dugun gaian, zalantzan jartzen da bitarteko funtzionarioek betetako plazak Enplegu Publikoko Eskaintzetan sartzea (EPE). Europako araudia betetzen ote den argudiatzen da, zehazki Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2021eko ekainaren 2ko Autoa, c- 103/19 Gaia, zeinak adierazten duen ezin direla oposizio librera atera abusu egoeran (sic) dauden funtzionarioek betetzen dituzten plazak. Gainera, adierazten du eskaera hori egin dela Erakundearen Etika Batzordeari dagozkion eginkizunak bete daitezen:

a) Dagozkion kodeetan jasotako balio, printzipio eta jokabide arauak hedatu, barneratu eta behar bezala bete daitezen sustatzea, batez ere Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodean eta goi kargudun publikoen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean jasotakoak.

b) Balio, printzipio eta jokabide arauekin bat ez datozen jokabideak prebenitzea antolaketan, horrela erakundearen irudia eta giro etikoa babesteko.

2.- Hain zuzen ere, 3/2016 Foru Dekretuaren 2. artikulua, urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuaren bidez aldatuak, honako hau ezartzen du: «Batzordearen xedea hau izango da: sustatzea eta bermatzea Diputatuen Kontseiluaren erabaki bidez onartutako jokabide kodeetan jasotako balore, printzipio eta arauak hedatu, barneratu eta behar bezala betetzen direla»; horien artean daude bai EPEKOK (enplegu publikoari buruzkoa), bai JJEK (goi kargudunei aplikatzeko).

Bestalde, 3. artikulua honako eginkizun hauek ezartzen ditu, besteak beste:

a) *Kargu publikoen jardunean sor daitezkeen jarrera desegoki hipotetikoaren prebenzioa, era horretan, Foru Aldundiaren irudia eta klima etikoa babestu eta bermatzeko.*

b) *Ebazpen, txosten edo oharren bidez, kargu publikoek egindako kontsultak eta azalduak zalantza eta dilema etikoak ebaztea.*

c) *Jokabideen eta Jardunbide Egokien Kodean jasotako balore, printzipio eta jokabide arauak ez bete tzeagatik aurkezten diren kexa edo salaketak bideratu eta horiek ebaztea. Ebazpen horiek Foru Aldundiari edo foru sektore publikoko gainerako entitateetako gobernu organoei zuzendutako proposamenak izan daitezke, haiek dagozkien erabakiak har ditzaten.*

(...)

Zalantzarik gabe, Erakundearen Etika Batzordeak eginkizun garrantzitsua dauka jokabide eta jardunbideen inguruan sor daitezkeen zalantzak argitzea; izan ere, EZS osatzen duten kodeetan jasotako balioak, printzipioak eta jokabide edo jarduera arauak ez betetzea ekar dezakete portaera haiek. Lan horretan dihardu sortu zenetik, eta ebazpen, iritzi eta gomendio ugari eman ditu, betiere EZS betetzeko helburuarekin, eta behin eta berriz adierazi du ezin direla argudio berberak erabili ordenamendu juridikoa betetzeko eta ikuspuntu etikotik jokabide jakin batzuk eskatzeko, nahiz eta askotan marra meheak bereizten dituen.

Gai honetan, zalantzan jartzen dira Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarritako EPEaren zenbait alderdi, eta adierazten da alderdi horietan ezarritakoa Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2021eko ekainaren 2ko Autoan ezarritakoaren aurkakoa dela.

Batzorde hau ez da inor auto horren esanahia zalantzan jartzeko edo interpretatzeko, ezta aipatutako plazak oposiziora atera daitezkeen ala ez erabakitzeko ere. Argi dago, nolana ere, araudia, legeria edo jurisprudentzia betetzearen inguruko gaia dela, baina ez duela zerikusirik EZSn jasotako balioak edo printzipioak zalantzan jartzen dituzten eta Gobernu Onari buruzko 4/2019 Foru Arauaren funtsezko zutabeak diren jokabide zehatz eta indibidualekin. Gai konplexua da, zalantzarik gabe, baina garrantzi juridikoa duten gatazkak edo kontraesanak konpontzeko eginkizuna duten organo eta instantzietan konpondu behar da nahitaez, eta hori ez da batzorde honen kasua (11/2019).

Horregatik guztiagatik, Erakundearen Etika Batzordeak, 2021eko ekainaren 14an, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

EBAZPENA

Bakarra.- Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodearen 3. artikulua araber (zintzotasunaren eta interesik ezaren balioei buruzkoa), lanpostuaren berezko eginkizunak betetzearekin lotuta dauden zereginak egiteagatik edozein konpentsazio jasotzeak, lanpostuak ezarritako ordainsariaz gain, integritate instituzionaleko sisteman ezarritako printzipioak eta jarduera arauak urratzen ditu. Beraz, konpentsazio hori ez jasotzea gomendatzen dugu.

04/2021 Ebazpena, Gipuzkoako Foru Aldundiko bitarteko funtzionarioen behin-behinekotasunari buruzkoa (EP)

EBAZPENA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO BITARTEKO FUNTZIONARIOEN KONTRATAZIOAREN BEHIN-BEHINEKOTASUNAREN INGURUAN AURKEZTUTAKO SALAKETA ANONIMOARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2021eko ekainaren 18an idatzi anonimo bat jaso zen, eta, bertan, kezka adierazten da Gipuzkoako Foru Aldundiko bitarteko funtzionarioen kontratazioan behin-behinekotasuaren abusua egon daitekeelako, kontuan hartuta 1999/70/EE Europako Zuzentarauak eta Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 10. artikulua ezarritakoa; hala ere, idatzi horretan aditzera ematen da alde batera uzten direla publikitate, merezimendu eta gaitasun printzipio konstituzionalak bitarteko funtzionarioek aspalditik betetzen dituzten plazei dagokienez. Kontratu horiek guztiak finko bihurtzea bermatzen duten txostenak eta epaiak daudela ere argudiatzen da.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurre-

rantzean, EZS) onartu zen, etika publikoa eta eredugarritasuna nortasun-ezaugarri gisa finkatzeko.

Sistema horren esparruan, ereduzko hainbat kode onartu ziren, bata bestearen segidan: 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile asimilatuen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea; 2017ko irailaren 5eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua; 2017ko azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea; eta 2018ko urriaren 2ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua.

2.- Bai Erakundearen Zuzentasun Sistemak bai Jokabide Kodeek ezartzen dute martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortutako Erakundearen Etika Batzordea izango dela berme handieneko organoa, eta bera arduratuko dela kodeak aplikatzeari buruzko gaiez; beraz, batzorde horri dagokio Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balio, printzipio eta jokabide arauak ez betetzeagatik jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Aztergai dugun gaien zalantzan jartzen da Gipuzkoako Foru Aldundiko bitarteko funtzionario batzuen kontratu-egoeraren legezkotasuna, gai horri buruzko legeria nazionala urratzen dela argudiatuz (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena); aldi berean, baieztapen hori berresten duten txosten eta epaiak daudela adierazten da, aipatutako dokumentuen aipamen zehatzik egin gabe.

2.- Zalantzarik gabe, gai konplexua da aztertzen ari garena. Beste batzuetan esan bezala, zaila da batzuetan Zuzenbidea eta Etika bereizten dituen marra azaltzea, baina nazioarteko komunitateak argi eta garbi onartzen du ez direla beti parekoak. Horrekin esan nahi dugu legearen babesik ez duen orok ez duela beti etikoki gaitzesgarria izan behar, zuzentasunaren edo etikaren ikuspegitik zuzenak ez diren ekintzak ez baitira beti juridikoki zigorgarriak. Horregatik, ez da beti egokiena argudio juridikoak erabiltzea zintzotasun-ara-
zoak bermatzeko edo gezurtatzeko.

Nolanahi ere, gai honetan ez dira zalantzan jartzen Erakundearen Zuzentasun Sisteman jasotako balioak, printzipioak edo jokabide arauak; aitzitik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren barruan gertatzen den lan-inguruabar baten egoera juridikoa aipatzen da. Hori dela eta, gogoratu behar dugu, aurrekoetan adierazi dugun bezala (2019/11, 2021/03), batzorde honen eskumena ez dela zenbait jokabide ordenamendu juridikoarekin bat datozen ala ez aztertzea, ezta araudia betetzen dela zaintzea ere, horretarako badaudelako batzorde hau baino bide eta organo propio eta egokiagoak.

Horregatik guztiagatik, Erakundearen Etika Batzordeak, 2021eko ekainaren 30ean, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

EBAZPENA

Bakarra.- Artxibatzea martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren 7. artikulua arabera aurkeztutako kexa, gai honen oinarrian ez baitago Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sisteman jasotako balio, printzipio eta jorkabide arauak aztertzea.

05/2021 Ebazpena, GFAko lan eskaintza publikoen berehalako deialdiari eta funtzionarioen behin-behinekotasunari buruzkoa (EP)

EBAZPENA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAN LASTER EGINGO DEN ENPLEGU PUBLIKO ESKAINTZEN DEIALDIARI ETA FUNTZIONARIO BATZUEN BEHIN-BEHINEKOTASUN EGOERARI BURUZ AURKEZTUTAKO SALAKETA ANONIMOARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2021eko ekainaren 19an, idatzi anonimo bat jaso zen, eta, bertan, kezka adierazten da EPEn (Enplegu Publikoko Eskaintza) berehalako deialdiagatik eta milaka bitarteko funtzionarioen behin-behinekotasun egoeragatik.

Aurkeztutako idazkian adierazten denez, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gobernantzako foru diputatuaren bidez, EPEn berehalako deialdia iragarri du, salatzaileak zalantzan jartzen dituen edo adosgarritzat jotzen ez dituen argudio batzuk erabilia; horrela, salatzaileak alegatzen du EPEetatik kanpo utz daitezkeela bitarteko funtzionarioek okupatutako plazak; bitarteko funtzionarioek gaudituz egin zituztela hautaketa probak eta/edo prozesuak, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioei jarraiki, Administrazioarekin lan harremana hasi zutenean; eta EPEak eskaini eta prozesuak bizkortu aurretik Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ezarritako irizpideak aplikatu beharko liritekeela, bitartekotasuna % 8tik behera murriztea eskatzen baitu.

2.- Horregatik guztiagatik, Erakundearen Etika Batzordeari eskatu dio azter dezala ustezko botere-abusu egoera hori eta Europako zuzentzarauak behin eta berriz ez betetzea.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurreantzean, EZS) onartu zen, etika publikoa eta eredugarritasuna nortasun-ezaugarri gisa finkatzeko.

Sistema horren esparruan, ereduzko hainbat kode onartu ziren, bata bestearen segidan: 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile asimilatuen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea; 2017ko irailaren 5eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua; 2017ko azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea; eta 2018ko urriaren 2ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore pu-

blikoaren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua.

2.- Bai Erakundearen Zuzentasun Sistemak bai Jokabide Kodeek ezartzen dute martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortutako Erakundearen Etika Batzordea izango dela berme handieneko organoa, eta bera arduratuko dela horiek aplikatzeari buruzko gaiez. Berari dagokio, halaber, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balio, printzipio eta jokabide arauak ez betetzeagatik jasotako kexak eta salaketak izapidez eta ebaztea.

3.- Gaian berariaz aipatzen denez Eider Mendoza, Gobernantzako foru diputatua eta Erakundearen Etika Batzordearen presidentea, ez du ebazpen honetan parte hartuko.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

Aztergai dugun gaian, batzorde honi eskatzen zaio azter ditzala ustezko botere-abusua eta Europako zuzentarauak ez betetzea eragiten duten inguruabarrak, laster egingo den Enplegu Publikoko Eskaintzaren deialdiari dagokionez. Aurkeztutako idazkian, Gipuzkoako Foru Aldundiak EPE horretarako deialdia egiteko emandako argudioak azaltzen dira, eta argudio bakoitzari, batzuetan, aurkako arrazoibide juridiko edo legala gehitzen zaio, eta, beste batzuetan, iritzi pertsonala.

2.- Deskribatutako egoerak 04/2021 gaiaren oinarri bera du, hau da, funtzionario publiko batzuen behin-behinekotasun egoera; ustezko abusu egoera foru administrazioaren alde-
tik; eta gai horri buruzko estatuko eta Europako araudia eta jurisprudentzia ez betetzea, nahiz eta gai honetan hori guztia enplegu-deialdiaren iragarkian sartzen den. Hala ere, egitate bera izanik funtsean salatzen dena, ezin bestela izan, aipatutako 4/2021 ebazpe-
nean adierazitakoa aipatu eta errepikatu behar dugu: gaiaren konplexutasuna aitortuta, uste dugu gatazka juridiko-legala dela funtsean, eta haren ebazpena batzorde hau baino bide egokiagoetatik konpondu behar dela, ez baita gure eskumena araudia betetzen dela zaintzea.

Horregatik guztiagatik, Erakundearen Etika Batzordeak, 2021eko ekainaren 30ean, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

EBAZPENA

Bakarra.- Artxibatzea martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren 7. artikulua arabera aurkeztutako kexa, gai honen oinarrian ez baitago Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemari jasotako balio, printzipio eta jokabide arauak aztertzea.

06/2021 Ebazpena, GFAko lan eskaintza publikoen deialdiari eta lege aldaketen iragarkiarri buruzkoa (EP)

EBAZPENA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO ENPLEGU PUBLIKO ESKAINTZEN DEIALDIARI ETA LEGEDIAN EGINGO DIREN ALDAKETEN IRAGARKIARI BURUZ AURKEZTUTAKO SALAKETA ANONIMOARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2021eko ekainaren 22an idatzi anonimo bat jaso zen, eta, bertan, kezka azaltzen da EPEen (Enplegu Publikoko Eskaintza) deialdiaren iragarkiagatik, kontuan hartuta legediak aldaketak izango dituela berehala eta aldaketa horiek eragina izan dezaketela funtzionario publiko batzuen behin-behinekotasun egoeran.

Aurkeztutako idatzian auresuposatzen denez, iragarritako lege aldaketen ondorioz, administrazio publikoak zehatu egingo dira bitartekotasun egoera hori hainbat urtez mantentzeagatik, eta, beraz, ez da egokitzat jotzen bitarteko horiek betetzen dituzten plazak EPE deialdian sartzea. Horregatik, prozesuak geldiarazteko eskatzen du, funtzio publikoaren kudeaketari ustez eragingo dioten lege aldaketen irismena ezagutu arte.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurreantzean, EZS) onartu zen, etika publikoa eta eredugarritasuna nortasun-ezaugarri gisa finkatzeko.

Sistema horren esparruan, ereduzko hainbat kode onartu ziren, bata bestearen segidan: 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile asimilatuen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea; 2017ko irailaren 5eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua; 2017ko azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea; eta 2018ko urriaren 2ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua.

2.- Bai Erakundearen Zuzentasun Sistemak bai Jokabide Kodeek ezartzen dute martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortutako Erakundearen Etika Batzordea izango dela berme handieneko organoa, eta bera arduratuko dela haiek aplikatzeari buruzko gaiez. Berari dagokio, halaber, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balio, printzipio eta jokabide arauak ez betetzeagatik jasotako keak eta salaketak izapidez eta ebaztea.

3.- Gaian berariaz aipatzen denez Eider Mendoza, Gobernantzako foru diputatua eta Erakundearen Etika Batzordearen presidentea, ez du ebazpen honetan parte hartuko.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Aztergai dugun gaiari dagokionez, salatzailea haserre agertzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak EPE deialdia iragarri duelako, zeinak aspalditik bitartekotasun egoeran dauden langileei eragiten baitie, eta, dirudienez, kolektibo horri eragiten dion legedian aldaketak izango direnean; beraz, deialdia geldiarazteko eskatzen du.

2.- Deskribatutako egoerak duela gutxiko 04/2021 eta 05/2021 ebazpenen oinarri bera du, hau da, funtzionario publiko batzuen behin-behinekotasun egoera, eta ustezko abusu egoera foru administrazioaren aldetik, enplegu deialdiaren iragarkiaren barruan kokatuta;

beraz, ebazpen horietan adierazitakoa berresten dugu. Gaiaren konplexutasuna aitortuta, uste dugu gatazka juridiko-legala dela funtsean, eta haren ebazpena batzorde honek egin ditzakeenak baino bide egokiagoetatik konpondu behar dela, ez baita gure eskumena araudia betetzen dela zaintzea.

Horregatik guztiagatik, Erakundearen Etika Batzordeak, 2021eko ekainaren 30ean, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

EBAZPENA

Bakarra.- Artxibatzea martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren 7. artikulua arabera aurkeztutako kexa, gai honen oinarrian ez baitago Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemari jasotako balio, printzipio eta jorkabide arauak aztertzea.

07/2021 Ebazpena, Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako telelaneko arauet buruzkoa (EP)

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ARGITARATUTAKO TELELANAREN ARAUEN INGURUAN AURKEZTUTAKO IDATZI ANONIMOARI BURUZKO EBAZPENA

I.- KONTSULTA

1.- 2021eko ekainaren 22an idatzi anonimo bat jaso zen, non kezka agertzen baitzen Gipuzkoako Foru Aldundian telelanari aplikatzeko irizpideak jasotzen zituen araudiaren inguruan (2020ko abenduaren 4an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa), zehazki 5.3 artikuluari dagokionez, non distantziari eta adingabeak edo mendekoak pertsonaren ardurapean izateari buruzko irizpideak ezartzen diren. Idatziaren arabera, baremazio hori kontraesanean dago berdintasunerako foru araudiarekin eta 2/2015 Legearekin, kontziliazioa eta erantzunkidetasuna eragozten baititu. Beraz, eskatzen da inguruabar hori kontuan har dadila erakundearen telelana arautzen duen araudiaren hurrengo aldaketetan.

II.- APLIKAZIO ARAUAK

1.- 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zen, horren bidez geureak ditugun etika publikoa eta eredugarritasuna bermatzeko asmoz.

Sistema horren esparruan, ereduzko hainbat kode onartu ziren, bata bestearen segidan: 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile asimilatuen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea; 2017ko irailaren 5eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua; 2017ko azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea; eta 2018ko urriaren 2ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua.

2.- Bai Erakundearen Zuzentasun Sistemak bai Jokabide Kodeek ezartzen dute martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortutako Erakundearen Etika Batzordea izango dela berme handieneko organoa, eta bera arduratuko dela haiek aplikatzeari buruzko gaiez. Berari dagokio, beraz, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balio, printzipio eta jokabide arauak ez betetzeagatik jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Aztergai dugun gaian zalantzan jartzen da, telelanaren modalitatean lanean jarduteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu dituen irizpideak legezkotasunera egokitzen ote diren. Irizpide horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2020ko abenduaren 4an. Idatzian adierazitakoaren arabera, 5.3 artikulua hau adierazten du:

- distantzia: 10 puntu, gehienez.

- 14 urtetik beherakoen edo mendekotasuna dutenen kargura daudenak: 5 puntu, gehienez.

Eskatzaileak adierazi du baremazio irizpide horiek foru araudiaren aurka doazela berdintasunari eta 2/2015 Legeari dagokienez, eta horrek kontziliazioa eta erantzunkidetasuna eta, beraz, langileen arteko berdintasuna eragozten dituela. Adierazten du, halaber, laster aldatuko dela telelanari buruzko araudia eta beldur dela berriro ere egoera bera gertatuko ote den; beraz, idatzian adierazitakoa kontuan hartzeko eskatu du.

2.- Beste behin ere, gai honetan zalantzan jartzen ari da zuzenbidera egokitzen ote diren Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako araudia edo irizpideak, kasu honetan, telelanaren modalitatean lanean jardun ahal izateko irizpideak. Beste batzuetan esan dugun bezala, gai sentikorra eta konplexua izan arren, batzorde honi ez dagokion azterketa eta hausnarketa juridikoa eskatzen duen gaia da; izan ere, gai honetan ez dira zalantzan jartzen Erakundearen Zuzentasun Sistemari jasotako balioak edo printzipioak urra ditzaketen jokabide desegokiak, baizik eta zalantzan jartzen ari da foru erakundeak hartutako araudiaren legezkotasuna. Hori dela eta, berriro esan behar dugu organo espezifikoko daudela horrelako gaiak baloratu eta ebatzi ahal izateko eskumen propioak dituztenak (11/2019, 06/2021), eta batzorde honi ez dagokiola gai juridikoak baloratzea.

Horregatik guztiagatik, Erakundearen Etika Batzordeak, 2021eko uztailaren 16an, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

EBAZPENA

Bakarra.- Artxibatzea martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren 7. artikulua arabera aurkeztutako kexa, gai honen oinarrian ez baitago Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemari jasotako balio, printzipio eta jokabide arauak aztertzea.

ALDI BATERAKO ENPLEGUARI BURUZKO EUROPAKO ZUZENTARAUEN USTEZKO EZ-BETETZE BATI BURUZ AURKEZTUTAKO SALAKETA ANONIMOARI BURUZKO EBAZPENA

I.- KONTSULTA

1.- Abuztuaren 13an idazki anonimo bat jaso zen, aldi baterako enpleguari buruzko Europako zuzentzarauen ustezko ez-betetze bati buruzkoa. Idazkian kontratazio publikoa aipatzen da, bai integritate instituzionaleko sistema osatzen duen kontratazioari aplikatu beharreko jokabide-kodea, bai kontratazio publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzentaraua, zehazki kontratazio publikoari buruzko printzipio gidariak kontratazio efizienteari dagokionez, bai eta Europako hainbat auto eta epai ere, ez direla bete adierazteko Enplegu Publikoaren Eskaintzen (epe) eremuan.

2.- Horregatik guztiagatik, argitaratutako lan-eskaintza publikoak bertan behera uzteko eskatzen du.

II.- APLIKAZIO ARAUAK

1.- 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zen, horren bidez geureak ditugun etika publikoa eta eredugarritasuna bermatzeko asmoz.

Sistema horren esparruan, ereduzko hainbat kode onartu ziren, bata bestearen segidan: 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile asimilatuen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea; 2017ko irailaren 5eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua; 2017ko azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea; eta 2018ko urriaren 2ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua.

2.- Bai Erakundearen Zuzentasun Sistemak bai Jokabide Kodeek ezartzen dute martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortutako Erakundearen Etika Batzordea izango dela berme handieneko organoa, eta bera arduratuko dela haiek aplikatzeari buruzko gaiez. Berari dagokio, beraz, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balio, printzipio eta jokabide arauak ez betetzeagatik jasotako kexak eta salaketak izapidez eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Aztergai dugun gaian, Europako zuzentzari, auto eta epaietan ezarritakoa oinarri hartuta argitaratutako EPEak eteteko eskatzen da (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, 2020ko martxoaren 19ko C-103/18 eta C-429/18 Gai metatuen Epaiak; ekainaren 2ko autoa D2021, C-103/19 auzia, GB-20 auzia, C-136 auzia, ekainaren 3ko auzia; GB-20 auzia, GBE-276 epaiak).

2.- Deskribatutako egoerak EEB honek berriki aztertutako zenbait gairen oinarri bera du (03, 04, 05, eta 06/2021. Gaiak). Hori dela eta, dagozkion ebazpenetan jada adierazitako argudioetara jotzen dugu gogorarazteko EEB honi ez dagokiola gatazka juridiko-legalak ebaztea, eta gatazka horiek dagoeneko ezarrita dauden bide egokien bidez konpondu behar direla.

3.- KJK eta EZS aipatzen diren arren, ez da erlaziorik ikusten horien eta EPEak eteteko eskaeraren artean, eta erabaki hori, jakina, ez dagokio EEB honi.

Horregatik guztiagatik, Erakundearen Etika Batzordeak, 2021eko irailaren 21ean, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

EBAZPENA

Bakarra.- Artxibatzea martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren 7. artikulua araberak aurkeztutako kexa, gai honen oinarrian ez baitago Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sisteman jasotako balio, printzipio eta jorkabide arauak aztertzea.

5. Aplikatzeko gida

2016an Erakundearen Zuzentasun Batzordea sortu zenetik, hobekuntza proposamen ugari egin ditu, eta horiek jardueraren urteko memorietan jaso dira. 2021ean, ahaleginak egin dira hobekuntza horiek hainbat tresnatan islatzen saiatzeko, hala nola aipatutako hedapen material sinplifikatuetan eta Zuzentasun Batzordearen antolaketa, prozedura eta funtzio-namendua garatzeko araudian (2022an argitaratuko dira). Hori dela eta, oraingo honetan, gomendio bakarra egin dugu: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakunde zuzentasun sistema etengabe eguneratzen, egokitzen eta hobetzen jarraitzea.

Erakundearen Etika Batzordearekin harremanetan jarri:

zuzentasuna@gipuzkoa.eus

Herritarren Informazio eta Arreta Bulego Zentrala. Foru Jauregia

Gipuzkoa Plaza z.g. 20004, Donostia

www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema/etika-batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa